

Prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruzko zuzentaraua¹: edukia, aplikazio eremua eta ondorioak

JOSU BARAMBONES (UPV/EHU)

Sarrera

Europar Batasuneko (EB) 27 estatu kideetan bideratzen diren prozedura penalak ugariagotuz doaz urtetik urtera. Europar Batasuneko hiritarren mugikortasun gero eta handiagoari esker, hala nola globalizazioari eta etorkinen etengabeko jarioari esker, gaur egungo justizia penalaren ezau-garririk nabarmenenak eleaniztasuna eta kulturantzatasuna dira.

Europako justizia penaleko sistemak egun duen arronka berri eta zail horri erantzun nahirik, 2010eko urriaren 20an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruzko 2010/64/EU Zuzentaraua onartu zuten. Estatu kide guztien arteko konfiantza sustatu eta akusa-

tuek bidezko epaketak jasotzeko eskubidea bermatzearren, Zuzentarauak estatu kide guztientzat gutxieneko arau batzuk ezartzen ditu prozedura penaletako interpretazio eta itzulpen arloan.

Prozedura penaletan pertsona susmargarrien edo akusatuen eskubide prozesalak indartzeko, Europako Kontseiluak hartzen duen lehen neurria da. Hori dela eta, hizkuntza eta kultura desberdinek parte hartzen duten prozedura penaletan jarduten duten profesional guztientzat mugari bat dugu Zuzentarau hau. Izan ere, Zuzentarau honek estatu kide guztiak behartzen ditu estatu bakoitzeko legedian garrantzi handiko aldaketak inplementatzera prozedura penaletan erabiltzen diren interpretazio eta itzulpen zerbitzuak hornitzeko garaian.

1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 288. artikulua arabera, Zuzentaruak behartu egingo dute zuzentzen zaizkion estatu kideak erdietsi beharreko emaitzari dagokionez, baina estatuko agintarien esku utziko dira Zuzentaruak inplementatzeko modua eta baliabideak.

2010/64/EU Zuzentaraua estatu kide guztietan inplementatzen laguntzeko eta inplikaturiko profesional guztiek ekarpenak egiteko asmoz, EULITA², Europako Lege arloko Interprete eta Itzultzaile Elkarte, TRAFUT³ izeneko egitasmoa lantzen ari da 2011. urteaz geroztik. Egitasmoa aurrera eramateaz arduratzen den taldeak lau tailer antolatu ditu Europako Batasuneko auzitegi-tako interpretazio eta itzulpenaren gainean. Tailer horien hartzaileak hauek dira: Justiziako eta Atzerri Ministerio-tako ordezkariak, autonomi erkidego-etako Barne eta Justizia sailak, Estatuko segurtasun indarrak, legegileak, epaileak, fiskalak, idazkari judizialak, abokatuak, Lege arloko Itzultzaile eta Interprete Elkarteak eta arlo akademikoko ordezkariak.

Orain arte bi tailer antolatu dira: lehena Ljublijanan (Eslovenia) izan zen eta azken tailerra Madrilen egin zen 2012ko martxoaren 15ean eta 16an. Bertan EIZIEko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egon ziren.

Aurrekariak

Sortu zenetik, EBk hainbat arau, lege eta neurri onartu ditu zuzenbide penalaren alorrean. Alor honetako Itzulpengintza eta interpretazioari dagokionez, 1950. urtean Europako Kontseiluak Giza Eskubideei buruzko Europar Konbentzioa onartu zuen. Delako Konbentzioaren 6. artikulua lehen aldiz ezarri zuen interprete baten doako laguntza izateko eskubidea bidezko epaiketak

ziurtatzeko. Harrez gero, Konbentzio horren 6. artikulua mugarriztat hartu izan du Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak hainbat erabakitan.

Dena dela, krimenari aurre egiteko, azken urteotan EBko estatu kideen arteko lankidetzak judiziala errazten eta sustatzen aurrerapen nabarmenak gertatu diren arren, guztiarekin ere neurri gutxi hartu dira pertsona susmagarrien eta akusatuen eskubide prozesalak bermatzearren. Hori dela eta, 2004. urtean, EBk bere asmoa agertu zuen prozedura penaletako eskubide prozesal batzuen gainean Esparru-erabaki bat hartzeko. Egitasmo horretako bost artikulua lege arloko interpretazio eta itzulpengintzarekin lotuta zeuden. Halere, hainbat estatu kidek agertu zuten kontrako jarrera zela eta, EBk 2007. urtean bertan behera utzi zuen egitasmo hori.

Geroago, 2009. urtean, suediar presidentziaren pean, EBk beste egitasmo bat erredaktatu zuen. Egitasmoak, prozedura penaletan pertsona susmagarri eta akusatuen eskubideak indartzeko, gutxieneko neurri batzuk proposatzen zituen estatu kideen arteko konfidantza edo uste ona hobetu eta areagotzeko. Esparru-erabakia 2009. urtean onartu zuten estatu kideek, baina Lisboako Ituna 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zenez, Europako Parlamentuak ez zuen astirik izan erabakia berresteko. Nolanahi ere den, egitasmo horrek marrazten zuen errepide mapa mugarriztat jo behar da, izan ere EBren historian zehar

2. Ikus. <http://www.eulita.eu/>

3. TRAFUT, "Training for the Future", hau da, "etorkizunerako prestatzen".

lehen aldiz 27 estatu kideak bat etorri ziren adieraztean neurri batzuk hartu behar zirela susmagarrien eta akusatuen eskubide prozesalاک bermatzeko.

Horiek horrela, beharrezkoa izan zen Zuzentarauaren zirriborro berri bati ekittea eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluaren gehiengo kualifikatuak onestea. Azkenik, 2010eko urrian, EBk prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruzko Zuzentaraua onartu eta 2010eko urriaren 26an argitaratu zuen aldizkari ofizialean.

Ezaugarri nagusiak

3.1. Zuzentarauaren aplikazio eremua

2010/64/EU Zuzentarauak gutxieneko arau edo neurri batzuk ezartzen dizkie EBko estatu kide guztiei prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari dagokionez, bai eta europar atxiloketa-agindu bat betearazteko prozedurei dagokionez ere. Horrela, EBren barruan lankidetzak judizialak berdintasunez eta zuzentasunez funtzionatzea bermatu nahi da, hartara auzi penaletan hartutako erabakiak estatu kide guztiek onar ditzaten. Halaber, Zuzentarauak gizabanakoen eskubideak areago babestu nahi ditu eta horretarako bidezko epaiketak izateko eta defentsarako eskubidea bermatzeko gutxieneko arau batzuk garatzen ditu.

Zuzentarauak aitortzen dituen eskubideen aplikazio-aldiari dagokionez, hots, eskubideok noiztik noiz arte aplikatu behar diren, ulertu behar da eskubideak indarrean sartzen hasten direla estatu kide bateko agintari judizial eskudunak dagokion pertsonari delitu bat egiteagatik susmagarria edo aku-

satua dela jakinarazten dionetik, jakinarazpen ofizial baten bidez edo bestela, harik eta prozedura amaitzen den arte. “Prozedura amaitzea” esaten denean, hau ulertu behar da, hots: “harik eta pertsona horrek delitua egin duen ala ez erabakitzen den arte”; hortaz, epaia ematen den arte eta, hala badagokio, edozein apelazio errekurtsio ebatzen den arte. Beraz, Zuzentaraua ez zaio aplikatuko prozedura penaletako exekuzio-aldiari.

Arau-hauste txikien kasuan, ordea, zigorrak auzitegia ez den baina arlo penalean eskumena duten beste agintari batzuek ezartzen badituzte (errepide kontrol bat egiten ari den poliziaren kasuan, berbarako), orduan interpretatzeko eta itzultzeko eskubidea bakar-bakarrrik aplikatuko da arau-hauste horiek sorraraz ditzaketan helegiteen ondorioz auzitegiaren aurrean abiatu daitezkeen prozesuetan.

3.2. Interpretatzeko eskubidea

Zuzentarauaren bigarren artikulua lehen atalaren eredura, estatu kideek ziurtatu behar dute ikerketak egiten dituzten agintarien aurrean edo agintari judizialen aurrean burutzen diren prozesuetan (poliziaren galdeketak eta auzitegien aurrean egin beharreko edozein agerraldi edo auzialdi barne), prozedura penaletako hizkuntza ulertu edo hitz egiten ez duten pertsona susmagarriek edo akusatuek interprete baten zerbitzua jasoko dutela, inolako atzerapenik gabe jaso ere.

Bestalde, prozeduren zuzentasuna babesteko beharrezkoa den kasuetan, bigarren artikulua bigarren atalak xedatzen du estatu kideek doako interpretazio zerbitzuak

eskaini beharko dituztela bezeroaren eta abokatuaren arteko komunikazioetan.

Bi kasu horietan estatu kideek beharrezkoak diren mekanismoak egokitu beharko dituzte interpretazioa ezinbestekoa den ala ez erabakitzeko.

Orobat, lehen eta bigarren atalen arabera interpretazio eskubidea entzumen edota mintzamen arazoak dituzten pertsonen ere ezarriko zaie.

Azkenik, aipagarria da seigarren atalak “urrutiko interpretazio” rako aukera ere eskaintzen duela. Interprete baten berehalako laguntza izateko, bideokonferentzia, telefono edo internet bezalako komunikazio teknologiak baliatu daitezke, betiere interprete baten presentzia fisikoa baitezpadakoa ez bada prozeduren zuzentasuna bermatzeko.

3.3. Itzultzeko eskubidea

3 (1) artikulua xedatzen du estatu kideek ziurtatuko dutela prozedura penaltako hizkuntza ulertzen ez duten pertsona susmagarriek edo akusatuek funtsezkoak diren agiri guztien idatzizko itzulpena jasoko dutela arrazoizko epe baten barruan, era horretara beren defentsarako eskubideaz baliatu daitezen eta prozeduren zuzentasuna babesteko.

Itzuli beharreko agirien izaerari dagokionez, pertsona susmagarriei egiten zaien aipamenak garbi uzten du eskubide honek epaiketaren aurreko aldiari ere eragiten diola. Hirugarren artikulua 3. atalak funtsezko agiri hauek aipatzen ditu:

- Pertsona bati askatasuna kentzen dion erabakia
- Akusazio idazkia

– Epaia

Halere, badira bi xedapen funtsezko agiriak itzultzeko eskubidea mugatzen dutenak: 3 (4) eta 3 (7) artikulua. 3 (4) artikulua argitan, ez dago inolako beharrik pertsona susmagarriei edo akusatuei euren kontrako kasuaren berri izateko garrantzitsuak ez diren funtsezko agirietako pasarteak itzultzeko. Eta 3 (7) artikulua arabera, funtsezko agirien ahozko *itzulpena* edo ahozko laburpena ere egin daiteke idatzizko itzulpen baten ordean, betiere prozedura penaltako zuzentasunari kalte egiten ez bazaio. Praktika honek asko arindu dezake epaitegietako eguneroko lana: luze jo dezakeen itzulpen baten ordean, ahozko itzulpena bertatik bertara egitea mesedegarria izan daiteke pertsona susmagarrientzat edo akusatuentzat. Horretaz gain, azken aukera honek itzulpen kostuak izugarri merkeagotuko ditu.

Azkenik, estatu kideetako agintari eskudunek kasuz kasu erabakiko dute zein agiri diren funtsezkoak, goian aipatu berri ditugunez gain, bai eta zein agiri zatika itzul daitezkeen ere.

3.4. Interpretazio eta itzulpen kostuak

Bosgarren artikulua dio estatu kideek beren gain hartuko dituztela susmagarriei edo akusatuei eskaintako interpretazio eta itzulpen zerbitzuek sorraraz ditzaketan kostu guztiak, prozedura penaltak izan dezakeen emaitza aintzat hartu gabe.

3.5. Interpretazio eta itzulpenaren kalitatea

Estatu kideek ziurtatu beharko dute interpretazio eta itzulpenaren kalitatea aski eta

nahikoa izango dela inplikaturako pertsona guztiek egozten zaizkien kargu guztien berri izan dezaten, hartara defentsarako eskubidea eraz eta zentzuz erabili ahal izateko.

Horretarako, 5 (1) artikulua arabea, estatu kideek neurri jakin batzuk hartu beharko dituzte eskaintzen diren interpretazio eta itzulpen zerbitzuek 2 (8) eta 3 (9) artikuluek eskatzen duten kalitate maila erdiesteko. 2 (8) eta 3 (9) artikuluek eskatzen dute pertsona susmagarriek edo akusatuek leporatzen zaizkien kargu guztien berri izan behar dutela, era horretara gai izan daitezten euren defentsarako eskubidea erabiltzeko.

Kalitatea dela eta Zuzentarauak dio interpretazioak “kalitate nahikoa” izan behar duela eta itzultzaile-interpreteek “behar bezala kualifikatuta” egon beharko dutela. Baina nola interpretatu bi termino horiek? Badirudi logikoa dela pentsatzea, gure testuingurua aintzat hartuta, itzultzaile-interprete judizialek unibertsitate mailako ikasketak izan beharko dituztela. Unibertsitate mailako kualifikazioa eskatzea oinarrizko abiapuntua litzateke erakunde ofizialetan orain lanean ari direnen eta aurerrantzean lan egingo dutenen lan egoera hobetu eta behin betiko homologatzeko.

Nolanahi ere, pertsona susmagarriek edo akusatuek eskubidea izango dute jaso duten interpretazioaren edo itzulpenaren kalitatea dela eta, erreklamazioak aurkezteko, zerbitzuaren kalitatea ez bada nahikoa prozesuaren berdintasuna ziurtatzeko.

3.6. Erregistroa

Interpretazio eta itzulpenaren egokitasuna sustatzeko eta inplikaturakoek zerbitzu

hauek eraginkortasunez jasotzeko, estatu kideek gaitutako itzultzaile eta interprete independenteen erregistro bat ezarri beharko dute. Behin erregistroa osaturik dagoenean, lege aholkulari eta eskudun agintarien eskura jarriko da.

Beren legediarekin bat etorririk, estatu kideek erregistroaren bidezko prozedura erabiliko dute organo eskudunari jakinarazteko inplikaturako pertsonak:

- Interprete baten laguntzaz deklaratu duten ala ez, edo galdekatuak izan diren;
- Funtsezko agirien itzulpen bat edo ahozko laburpen bat jaso duten;
- Agiriak itzultzeko eskubideari uko egin dioten.

3.7. Transposizioa

9 (1) artikuluaekin bat etorririk, 2013ko urriaren 27a baino lehen estatu kideek abiarazi beharko dituzte Zuzentarau hau betetzeko beharrezkoak diren lege, arau eta administrazio xedapen guztiak. Beraz, Zuzentarauaren xedapena betetzeko inplementazio epea bukatzen denean, estatuaren barneko lege eta arauak egokitu ez dituzten estatu kideei urraketa-prozedura bat ireki ahalko zaie, Europako Justizia Auzitegiak ezar ditzakeen zigorrak eta betearazpen neurriak barne.

3.8. Espainiako kasua

Interpretazioaren eta itzulpenaren egokitasuna bultzatzeko eta interpretazio eta itzulpen zerbitzuak eraginkortasunez erabiltzeko, 5 (2) artikulua dio estatu kideak

saiatu egingo direla gaitutako itzultzaile eta interprete independenteen erregistro bat ezartzen. Dakigunez, gaur egun ez dago halako erregistrorik Espainian. Espainiako Atzerri Ministerioak zinpeko interprete eta itzultzaileen erregistro bat dauka, baina erregistro horren helburuak desberdinak dira.

Madriren egin ziren jardunaldietan Atzerri Ministerioako ordezkariak zalantzan jarri zuen erregistro horren egokitasuna Zuzentarauak ezarritako betekizunak erdiesteko. Arazoa galdera honetan datza: Zuzentaruaren argitan zinpeko itzultzaile-interpreteak “behar bezala kualifikatuak” daudela ulertu behar al da? Kontuan hartuta zinpeko itzultzaile-interpreteen habilitaziorako hainbat irizpide erabili izan direla azken urteotan, batek galde dezake ea Zuzentaruaren xedetararako proba berezirik egin beharko litzatekeen itzultzaile bat “behar bezala kualifikatua” dagoela zehazteko, eta, kasu horretan, zeini dagokion halako probak egitea.

Gainera, kontuan hartu behar da Espainiako Atzerri Ministerioaren erregistroaz gain, hainbat autonomi erkidegok beren erregistro propioak sortu dituztela⁴. Hor-taz, Espainiako autonomi erkidegoetako eskumenak errespetatu behar direnez, ez dago argi eskumen hau autonomi erkidegoei bakarrik dagokien edo eskumen hau estatuaren eta autonomi erkidegoen artean kudeatu behar den. Halaber, ez dago batere argi autonomi erkidego bateko erregistroan

dagoen itzultzaile-interprete batek bere zerbitzuak bakarrik erregistraturik dagoen erkidegoan eskaini ahalko dituen edo erkidego guztietan erregistratu beharko duen.

Ikusten denez, oraindik puntu ilun asko daude Zuzentaru honen inguruan. Kontuan hartzen badugu Espainiako Gobernua oraindik ez dela hasi Zuzentaru Espainiako estatutan inplementatzeko neurriak aztertzen, ez dirudi garaiz iritsiko denik Zuzentaru indarrean sartuko den egunera, are gehiago ikusita Zuzentaruak eskatutako neurrietako batzuek Espainiako Parlamentuaren onespena beharko dutela.

Zalantzarik ez dago prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruz EBko Kontseiluak eta Parlamentuak onartu duten Zuzentaru aurrerapauso garrantzitsua dela interprete eta itzultzaileen lana aitortzeko bidean pertsonen funtsezko eskubideen bermatzaileak diren aldetik. Orain estatu kide guztiek, Espainiak barne, beren legedi barruan txertatu behar dute Zuzentaruak xedaturikoa. Prozesu hau behar bezala mamitzen bada, Zuzentaru zedarri sendoa izango da interprete-itzultzaileen figurari zor zaiona aitortzeko. Orobat espero izatekoa da arlo honetan diharduten interprete-itzultzaileen lan baldintzak hobetzeko ere baliagarria izatea.

Prozesuaren arrakasta bermatzeko eta itzultzaile-interpreteen erregistroa sortu eta kudeatzeko hartzen den erabakia edozein

4. Euskararen kasuan 2011ko ekainaren 8an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian euskarazko zinpeko itzultzaile zein interprete lanetarako habilitazioa lortu dutenen erregistroa arautzen duen agindua. Geroago, itzultzaile eta interpreteen habilitaziorako probak egin eta habilitazioa lortu duten itzultzaile-interpreteen zerrendak argitara eman ditu Eusko Jaurlaritzak. Zerrendak webgune honetan daude ikusgai: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/noticia/zinpeko_zerrendak/eu_zinpeko_zerrend.html

delarik ere, desiragarria litzateke Espainiako Gobernuak eta agintari judizialek kontuan hartzea arlo judizialean jarduten duten adituen eta itzultzaile-interpreteen elkarreentako ahotsa. Unea iritsi da agintari judizialek eta Justiziako Administrazioak interpretazio eta itzulpen juridikoaren egoeraz sentsibilizatu eta interprete-itzultzaileen lan baldintzak berriz planteatzeko.

Erreferentziak

2010/64/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2010eko urriaren 20koa, prozedura penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruzkoa, <<http://eulita.eu/sites/>

[default/files/directive_en.pdf](http://www.eulita.eu/sites/default/files/directive_en.pdf)> (ingelesezko bertsioa); <http://www.eulita.eu/sites/default/files/directive_es.pdf> (gaztelaniazko bertsioa).

Crass, Steven and De Matteis, Luca, *The Directive on the Right to Interpretation and Translation in Criminal Proceedings*, <http://www.mpicc.de/eucrim/archiv/eucrim_10-04.pdf> [2012-03-22an kontsultatua].

EULITA (European Legal and Translators Association):

<<http://www.eulita.eu/>>

TRAFUT, *Training for the future* izeneko egitasmoaren berri: <<http://www.eulita.eu/training-future>>

DIRECTIVA 2010/64/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa al derecho a interpretación y traducción en los procesos penales

Este artículo aborda el contenido y posibles efectos de la Directiva 2010/64/UE del Parlamento Europeo y del Consejo relativa al derecho a interpretación y traducción en los procesos penales de los sospechosos o acusados que no hablen o entiendan la lengua del proceso.

La Directiva establece unas normas mínimas comunes para los países de la UE y deberá aplicarse desde el momento en que las personas sean notificadas de la comisión de una posible infracción penal hasta que el proceso haya finalizado, incluida la sentencia y la resolución de cualquier recurso presentado.

Uno de los aspectos más interesantes de la Directiva es el relacionado con la calidad de la interpretación y traducción, ya que la Directiva señala que con el fin de que las personas implicadas puedan tener conocimiento de los cargos que se les imputan y ejercer el derecho a la defensa, los estados miembros deberán establecer un registro de traductores e intérpretes cualificados.

Aunque todavía la Directiva no ha sido desarrollada en España, el autor defiende la idea de que a los intérpretes-traductores judiciales se les exigiera una titulación universitaria con el fin de mejorar las condiciones laborales de este sector y lograr una homologación a nivel europeo.

DIRECTIVE 2010/64/UE du Parlement et du Conseil Européens, relative au droit à l'interprétation et à la traduction dans les procédures pénales

Cet article traite du contenu et des effets de la Directive 2010/64/UE du Parlement et du Conseil Européens relative au droit à l'interprétation et à la traduction dans les procédures pénales, auxquelles sont soumis les suspects ou les accusés ne parlant ou ne comprenant pas la langue utilisée par le tribunal.

Cette Directive établit un minimum de normes communes pour tous les pays de l'Union Européenne et elle devra s'appliquer à partir du moment où les personnes seront avisées d'avoir commis une faute pénale, jusqu'à la fin de la procédure, y compris la sentence et la résolution de tout recours présenté. L'un des aspects les plus intéressants de cette Directive est celui qui a trait à la qualité de l'interprétation et de la traduction. En effet, elle précise que les États membres devront établir une liste de traducteurs et d'interprètes qualifiés, afin que les personnes impliquées puissent connaître les charges qui leur sont imputées et exercer leur droit à la défense.

Bien que cette Directive n'a pas encore été appliquée en Espagne, l'auteur de cet article défend l'idée d'exiger aux interprètes-traducteurs assermentés un titre universitaire, afin d'améliorer les conditions de travail du secteur et d'obtenir l'homologation au niveau européen.

European Parliament and Council Directive 2010/64/UE, Concerning the Right to Interpretation and Translation in Criminal Trials

This article examines the content and possible effects of European Parliament and Council Directive 2010/64/UE on the right to interpretation and translation in criminal trials for suspects and defendants who do not speak or understand the language of the trial.

The Directive establishes common minimum norms for European Union countries and should remain in effect from the moment at which the individuals involved are notified of the commission of a possible criminal offense until the end of the trial, including sentencing and the resolution of any and all appeals.

One of the most interesting aspects of the Directive is the question of the quality of the interpretation and/or translation, given that the Directive states that in order for the individuals involved to understand the charges brought against them and exercise their right to defense, the member states of the European Union should establish a roster of qualified translators and interpreters.

Although the Directive has not yet been put into practice in Spain, the author supports the idea that judicial interpreters and translators should be required to have university-level certification in order to improve the work conditions of this sector as well as to achieve standardization in judicial interpretation and translation at the European level.



